

**GuraSOsek ekimen juridiko berriak iragarri ditu**

**Usurbil Cup-en izena emateko garaia da**

**Ikasturte amaierako kontzertuak Zumarte Musika Eskolan**

# noaua



**Eskuak,  
urratsak,  
norabide berean**



begi•bistan

# ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakean.

Begiraleekin antolatutako jarduerak.

657 794 677

www.begi-bistan.com  
info@begi-bistan.com



# Escocia



**NOAQA**  
BIDAIK

943 373 613

**IRTEERA IRAILEAN**  
Noaak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.



# HAUNDITZEN ORAIN USURBILEN

Astearte eta ostegunetan  
19:00 - 20:00  
Etorri proba egitera 2 egunetan doan

informazio gehiago  
www.kalefit.com

688.610.932

f i

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaqa.eus web orrian



<http://www.noaqa.eus>

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean...  
Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaqa.eus

MERKATU TXIKIA



noaqa

## Albiste iruditzen

# Eraisketa lanak amaituta, Ugartondo etxebizitzak eraikitzeko prestatzen

**H**utsune handi bat sumatuko dute Ugarte baserri ingurura hurbiltzen direnek. Urte luzez, zutik ziren eraikinak eraitsi dituzte. Zutik mantentzen den bakarra, aipatu Ugarte baserria bera da. Eta baita, lehenik, Alkartasuna Kooperatibaren egoitza izan, eta gerora, Usurbilgo Gaztetxearen aterpea izan zen eraikineko hormaren bat. Gainerakoan eremua libre da, laster etxebizitza berriak eraikitzen hasteko. Gogoan izan, Ugarte baserriaren bueltan eraikiko dituztela, urte hasieran Usurbilgo Udalak zozketatu zituen babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu. Otsailean hesitu zuten ingurua eta apirilaren erdialdera hasi zituzten eraiste lanak.



Ugarte baserriaren bueltan, babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu eraikitzen hasiko dira laster.

## Laburrean

### Furgobaratza, Baratze Parkean

Agerreazpiko Baratze Parkera dator Furgobaratza. Ekainaren 25ean astelehena, 18:00-19:30 artean, "Nola egin aurre gaixotasun eta izurriteei" izeneko taillera antolatu dute.

### Jaietako zikiro janerako txartelak, agortuta

Ekainaren 30ean Askatasuna plazan ospatuko den zikiro janak arrakasta itzela izan du beste behin. Pentsa, egun baten bueltan tabernetan eskuragarri jarri onduko amaitu ziren txartelak.

### Oilasko biltzaileen bazkaria Kalezarren

Urtero moduan, Kalezarren jaien aurretik, ekainaren 15etik 21era eskuratu ahalko dituzue Kaffa kafetegian. Ekainaren 23an ospatuko dute San Juanetako oilasko biltzaileen bazkaria 14:00etan.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etzabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

## Astoak a, idiak mu

“Zati askotan, etenak egon ziren”. Belartza aldean ordea, jendea pilatu samar zegoen. Okupatzen zuten espazioaren bikoitza betetzeko lain.

“Ibilbideko hainbat eremutan, gazte jende gutxi”. Astelehen goizean, kexu zen entzule bat irratian. Usurbilen, 11. kilometroan hain zuzen, horretxek harritu ninduen gehien. Gazte jende pila bat. Lankidearen argazkiei so, hamabigarrenean ere beste horrenbeste zeudela konturatu nintzen.

“Folklore hutsa dira horrelako

ekitaldiak”. Hori esan zidan lagun batek. Hortik ere izango zuen. Baina parte hartu zuten denek jakingo ahal zuten nork eta zertarako antolatu zuten, ezta? Bide bazterrera hurbildu ziren guztiek ez dute bulkada bera izango. Falta zena. Baina hori ez al da ederra? Nork bere ñabardurak egiteko aukera izatea. Eta ñabardurak ñabardura, aldamenekoari eskutik heltzeko borondatea agertzea. Zer esan-go dizuet, nagi gehiago ematen didate jokabide monolitikoek.

“Manifestazioak manifestak bilakatu direnetik...”, pentsatuko

du batek baino gehiagok. Aldarrikatu nahi duzun hori, giro onean aldarrikatzea oso sanoa iruditzen zait niri. Bestelako aldarrikapen sozialak eta politikoak egiteko tarterik ere izan zen. Bestelako pankartak eta bestelako zapiak ikusi nituen ibilbidean zehar.

“Dena ez dago gure esku”. Duela bost urtetik hona, Gure Esku Dago sortu zen une beretik behin eta berriro errepikatzen den leloa. Noski ezetz. Rosa Parks ez zen epaile. Ez zuen gudaroste bat bere aginduetara. Ez zen Amerikako

Estatu Batuetako presidentea. 1955eko abenduaren 1ean, Alabaman, Rosa Parks uko egin zion bere eserlekua gizonezko zuri bati utzi eta autobusaren atzealdean esertzeari, orduko AEBetako hegoaldeko legeak zioenaren aurka. Preso hartu zuten. Atxiloketak eskubide zibilen aldeko mugimendua piztu zuen. Gaur, Alabamako autobusetan ez da tanke-rra horretako bereizkeriarik ametitzen. Rosa Parks ez zen legelari, ezta komandante ere. Rosa Parks jostuna zen.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | **Imanol Ubeda** | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Altsasukoak aske nahi ditugu

A ski da! Kalera irten behar dugu Altsasukoei elkartasuna adierazteko eta eskandaluzko sententzia hau salatzeke.

Auzitegi Nazionalak muturreraino eraman du Altsasuko zortzi gazteen aurkako zigorra. Jende gehienaren moduan, suminduta eta haserre egon beharko ginateteke eskandalu honekin, prozedura osoarekin eta erregimen postfrankistaren

demokrazia ezarekin. Horregatik kalera irten behar gara, zigortutako gazteei elkartasuna agertzeko eta epaia salatzeke.

Gisa honetako erabaki asal-dagarriek agerian uzten dute erregimen postfrankista honetan ez dagoela demokrazia-rik, ez botere banaketarik, ez justiziarik, gerra-gosea baizik. Trihorniodun epaileak dauden artean, hemen ez dago bizikidetzaren egonkorrik eta bake

iraunkorrik eraikitzerik.

Estatu lotzen gaituzten ka-teak mozteko determinazioa sendotu baino ez du egiten epai honek. Izan ere, herri honetan guztiok modu duinean bizitzea merezi dugu, berme guztiarekin, ez gezurretako “demokrazia” honetan.

Asteazkenean, ekainak 13, argazki erraldoia aterako dugu Mikel Laboa plazan 19:30ean, Altsasukoak aske nahi ditugula

aldarrikatuz!

Bestalde, Usurbildik autobusak irtengo dira ekainaren 16an Iruñean izango den manifestazioa joateko. Goizez 10:30ean irtengo da eta arratsaldez 15:00tan. Bi kasuetan kiroldegitik. Izena emateko ohiko tabernetan izango dira zerrendak eta asteartetik ostiralera mahaia izango da Sutegi sarreran.

**Sortu Usurbil.**

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Datorren urtean Aginagan ospatuko da Eskola Txikien Festa

**E**skola Txikien festa handia ospatu zuten igandean Oikian, “Gutxirekin asko egiteko indarra” aldarripean. Han ziren, besteak beste, Aginagako Eskolako ki-deak ere. Eguneko protagonistak izan baitziren, oikiarrekin batera. 2019ko Eskola Txikien Festa eguna Aginagan ospatuko da.

Ekainaren 10ean iragarri zuten urtebete barruko hitzordua. Eskolatik bertatik helarazi dituguten irudian ikus dezakezuen moduan, lekuko hartzearekin irudikatu zuten Aginaga izan-go dela 2019an, Eskola Txikien festaren topagunea.



Aurreko asteburuan, Oikian egin zen ospakizunean jaso zuten lekukoa.

## Jaietako jubilatuen bazkarirako

### txartelen salmenta

Igandez ospatuko da aurten, uztailaren 1ean 14:00etan Atxega Jauregian. Txartelak ekainaren 20an goizeko 10:00etan jarriko dituzte salgai Gizarte Zerbitzuetan eta herriko hiru jubilatutako elkarrekin egoitzetan: Aginagako Arraten, Santueneko Gure Elkartean eta Usurbilgo Gure Pakean. Lehenago agortzen ez badira, txartelak eskuratze-ko, beranduenez, ekainaren 22ra arteko epea egongo da.

### Uztailaren 1ean, Atxegan

■ Txartelak ekainaren 20an jarriko dira salgai Aginagako Arraten, Santueneko Gure Elkartean, Usurbilgo Gure Pakean, Gizarte Zerbitzuetan.

## Ika-mika

# Robotak

**G**arai ilunak bizi ditugangile klaseak, krisiak ekarri dituen soldata murrizketak eta lan kalera-tzeak honen adierazle garbiak dira. Hori gutxi balitz, robotika “industria iraultza” berria dela kontsideratzen da, XIX. mendean ehungailu, lurrin eta ikatz makinekin mundua aldatu zuen hura bezalakoa. Azken finean, Garai Aldaketa baten aurrean gaude, baina garai aldaketa hau goi elite ekonomikoan eskuetan burutua izaten ari da, balore patriarkalak oinarri dituelarik, hala nola, Hazkuntza, Garapena, Modernizazioa edo Lehiakortasuna.

Hala ere, langile klaseak gure balore kultural propioetatik eta irrika burujabe individual eta kolektibotik gizarte berri bat

imajinatzeko eta eraikitzeko momentua izan daiteke.

Datu gehiagorekin jarraituz, CEOek 2025eko Espainiarako Plan Digitala publikatu berri du, bertan laugarren Industria Iraultzaren aurrean gaudela dio, Garai Aldaketa batean. 29. orrialdean azpimarratzen du: “Robotak tamainan, prestakuntzan eta prezioan eraldatuz doaz. Gaur egun, aplikazio batzuetan, robot bat urte eta erdian amortizatu daiteke”.

Aurreko urteko azaroan Industria 4.0 Kongresua ospatu zen, eta EAEko gobernuko ekonomia garapeneko kontseilariak euskal enpresa guztiak laugarren industria iraultza honetara txertatzea helburu estrategiko gisa ipini zuen. Erroka honetan inplikaturik

daude hainbat instituzio publiko, unibertsitate ...

Bertaratzea ez zen batere eskasa izan, euskal enpresetako 2.500 ordezkariak parte hartu baitzuten, duela lau urte ospatu zenean (lehen edizioan) azaldu zirenen hirukoitza. Robotikaren eta modelo industrial berri honen inguruan ez da eztabaida handirik eman, baina garbi dago langile klasean sekulako eragina izango duela, eta nola ez gazteen etorkizunean.

Aurten ere Maiatzak 1ean langileen aldeko borrokarako deia egin zen, soldatapeko lana aldarrikatuz. Zentzua al du soldatapeko lana aldarrikatzen jarraitzeak? Hau al da gizarte burujabe batera garamatzen bidea, ala benetan egungo sistemaren botere mekanismoek

sortzen dituzten menpeko egoerak indartzen ditu?

Latinez «labore» hitzak «karga pisutsu bat sufritzea» esan nahi du eta esklabutza jansankizun eta irainetan laburbiltzen da. Bestalde, «travail», «trabajo» hitz romanikoak latineko «tripalium» hitzaren deribatuak dira, esklabuak torturatzeko erabiltzen zen zama moduko bat zen (lana soldatapeko enplegu gisa ulerturik).

Gizartearen egoeraren beste isladetako bat petroleoaren prezioa da, eta azken 18 hila-beteetan izan duen gorakada, %40aren ingurukoa. Bitartean, gure eredu Kultural Matrilinealak zain jarraituko du, kar-toizko kaxa batean ezkutuan.

**Gabriel Valin.**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 18.



# Euskara eta aisialdiko diru-laguntza deialdien oinarriak argitaratu ditu Udalak

2017-18 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako, behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzako eta ikasturte honetan zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza deialdiak argitaratu ditu Usurbilgo Udalak. Eskabideak ekainaren 25etik uztailaren 6ra aurkeztu ahal dira udal erregistroan. Behar ekonomikoak dituztenen kasuan, eskabideak matrikula egindakoan aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago, ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

## Alegazio epean

Ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen Udalak 2018ko zerga ordenantza aldatuari eta etxeko laguntzari buruzko iragarriak. Orduetik erabakion aurrean, alegazioak aurkezteko 30 eguneko tartea zabalik dago.



**Etxeko etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegiaren aldaketa aho batez onartu zuen udalbatzak.**

## DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

**“Eskabideak ekainaren 25etik uztailaren 6ra aurkeztu ahal dira udal erregistroan”**

## Etxeko etxeko laguntza zerbitzua

Etxeko etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegiaren aldaketa aho batez onartu zuen udalbatzak maia-

tzaren 29ko osoko bilkuran. Udala eta Aldundiaren arteko hitzarmen berria sinatzea ere aho batez babestu zuten udal ordezkari guztiak.

Hainbat hobekuntza onartu dira, “erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean” oinarritzen den asistentzia eta prebentzio zerbitzu honetan. “Etxeko laguntza edota laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko

eta beren komunitatean txertatzeko, bakardadea saihestuz”, nabarmentzen dute Udaltetik. Orain arte erabiltzaileak 19 euro ordaindu behar zituen gehienez orduko. Prezioa, 15 eurora murriztu dute. Zerbitzua eskaintza ere zabaldu dute, urte osora. Asteazkenean 28 orduko laguntza emango da.

## Eskumen aldaketa

2008ko EAeko Gizarte Zerbitzuen legearen eraginez, beranduenez 2020rako etxeko laguntza zerbitzua eta haren finantziarioa Udalaren esku izatera igaroko da. Une horri begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu honen finantziarioa %80tik %50era murriztu du 2018 eta 2019rako. 2020 bitarteko trantsizio tarte hau arautzeko Udalak Aldundiarekin hitzarmenak sinatzen ari dira. Usurbilgoak ere hitzarmen hau berritzea aho batez onartu zuen azken osoko bilkuran.

# Udala eta gizarte eragileen arteko hitzarmen berritzeak

Urtero egin ohi duen moduan, hitzarmena berri-  
tu du Usurbilgo Udalak herriko gizarte eragile hainbatekin, beste 12 hilabeterako.

Ondoko irudian dituzue, Udalaren izenean Xabier Arregi alkatea eta Usurbilen Nahi Ditugu, DYA eta Usurbilgo Odol Emaileen elkarteak ordezkariak, ekainaren 7an Po-txoenean egin zuten sinatze ekitaldian. Hitzarmenok eragile bakoitzak jasoko duen laguntza zehazten dute.



**Usurbilen Nahi Ditugu, DYA eta Odol Emaileen elkarteekin hitzarmen bana sinatu du Udalak.**

## Apirilean adina langabetu maiatzean

Aldaketarik ez Usurbilgo langabetu kopuruan, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu dituen azken datuen arabera. Maiatzean, apirilean adina lanik gabeko herritar zegoen Usurbilen; 242. Buruntzaldean 6 langabetu gutxiago, 3.246 eta Gipuzkoan 409 langabetu gutxiago, 32.351.

Generoaren ikuspegitik, aldea nabaria da ordea. 101 langabetu gizonezko zeuden maiatzean Usurbilen eta 141 emakumezko.

Adinari dagokionez, 242 langabetutik ia erdia (119) 45 urtetik gorakoa da. 106 langabetuk 25-44 urte artean dituzte.

# “Seguru gaude, guztion artean lortuko dugula herrikideak euskaraz gehiagotan entzun ahal izatea”

**E**ragile eta herritarren babesean plazaratu dute, geure hizkuntza ahotan gehiagotan hartzea sustatzera datorren Euskaraldia! “Seguru gaude, guztion artean lortuko dugula herrikideak euskaraz gehiagotan entzun ahal izatea”, adierazi zuten, Euskal Herri mailako ekimen honi herri gisa babesa emateko ostiral arratsaldean Mikel Laboa plazan egin zen agerraldian.

Hainbat eragileetako ordezkari eta herritar bildu zituen hitzorduak bozgorailu lana egin nahi zuen, lehen urratsa eman, azken asteotan talde edo elkarte ezberdinekin egin duten errondaren ostean. Euskaraldiaren bat egin dutenen artean dira Etumeta AEK euskaltegia, Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala, NOAUA! K.E. edota hainbat herritar. “Zerk batzen gaitu? Euskararen erabilera indartu nahi izateak. Lagun gehiago jarri nahi dugu euskaraz hizketan eta badaki-



Ostiral arratsaldean agerraldia egin zuten Mikel Laboa plazan.

## EUSKARALDIA

**“Zerk batzen gaitu?  
Euskararen erabilera  
indartu nahi izateak.**

**Lagun gehiago jarri nahi  
dugu euskaraz hizketan”**

gu posiblea dela gainera”. Datu bat plazaratu zuten; badira ia 1.000 bat herritar euskara ulertu baina hitz egiten ez dute-

nak. Haiekin euskaraz aritu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamena luzatzen digute, azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko den Euskaraldian.

Horretarako “ahobizi” zein “belarriprest” gisa aritu nahi dutenak erakartzen hasi nahi dituzte. Usurbildarrak, Euskaraldiaren aurretik bideratu beharko diren prestaketa lanetara gonbidatu nahi dituzte baita. “Zuek animatzen bazarete edo

zuen elkarteak, jarri harremanetan eta poz pozik erantzungo dizuegu”.

Hizkuntza ohiturak aldatzen, euskararen erabilera areagotzen laguntzeko esperimentu modukoa izan nahi du Euskaraldiak. 16 urte izan eta euskaraz hitz egin edo ulertzen duen herritar orok parte hartu ahal du 11 egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra luzatuko den ekimen erraldoi honetan.

## 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

### Zer egin dezakegu euskal hiztunok euskararen erabilera areagotzeko?

Galderak hainbat erantzun ditu, baina, guk, hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa bat proposatzen dizuegu: 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz. Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake.

### Nola egingo dugu?

Ondoko bi roletako bat har dezagun 11 egunez:

■ Ahobizi: ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

■ Belarriprest: egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

### Zer lortu nahi dugu?

■ Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertiak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.

■ Euskal Herrian euskara ulertzen duen jendea pensatzen duguna baino gehiago

dela jabeaztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikusaraztea.

■ Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.

■ Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.

### Non egingo dugu?

Bakoitzak bere inguruan, bere ohiko harreman sareetan egingo ditugun proposatzen dugu: familia, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan...

### Eta bitartean, zer egin dezakegu?

Hiru parte hartzeko modu proposatzen dizkizugu:

1- Batzordeetan parte hartu: herriko eragile eta euskaltzaleek antolatutako batzordeetan zure ekarpena egin.

2-Euskaltzale eragile izan, ekitaldietan lagundu: Usurbilgo Euskaraldiko batzordetik kanpo dauden euskaltzale aktiboak izango dira, ekimena zabaldu eta tarteka laguntzeko prest dauden norbanakoak.

3-Euskaraldiari buruzko informazioa jaso: Euskaraldiari buruzko informazioa jaso eta ekimenetan parte hartuko dute.

## GuraSOSen ekimen juridikoek errauste plantaren kolapsoa eragin dezakete

Zubietako erraustegia ez da atzera bueltarik gabeko proiektua. “Bere etorkizuna ez dago guztiz erabakia”, nabarmentzen zuen GuraSOSek aste hasieran Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako agerraldian. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019ko udazkenerako martxan izatea aurreikusten duen Zubietako gaineko plantaren eta haren finantza ereduaren kolapsoa ekar dezaketen ekimen juridikoak aurkeztu zituen joan den astean GuraSOSek, Europako erakundeetan.

Ekimenon gaineko xehetasunak plazaratu zituzten. Segidan aipatzen diren keak Europar Parlamentuko Eskaeretako Batzordera igorri dituzte. Batek, Eurostat-i “defizita eta zortze publikoa kontrolatzeko eta zuzentzeko mekanismoak aktibatzea” eskatu dio GuraSOSek, “salatutako arau-hauste eta iruzurrak direla eta”. Horrekin batera, erakunde berari Espainiako kontu nazionalen komisio teknikoaren 2017ko apirilaren 18ko txostena aztertzea galdegin diote. “Txosten honek, kontratutik eratorritako operazio ekonomikoari kontabilitate nazionalean emandako trataera du aztergai”. Zenbait zuzenketa jasoko dituen txosten berri bat igortzea eskatzen dio GuraSOS-ek. Gogorarazten



Ekimen juridikoak iragartzeaz gain, herritarren parte-hartzea bermatuko duten neurriak eskatzen jarraituko du GuraSOSek.

duenez, “ez da egia, azpiegiturak erabiltzearekin lotutako arriskuen gehiengoa kontratari behar bezala transferitzen zaiola”. Bestalde, “ez da erregistratu behar bazkide pribatuaren kapital finkoaren eraketa gordingisa”. Azkenik, GuraSOSetik ohartarazten dutenez, “Europar Batasuneko gehiegizko defizitaren protokoloaren testuinguruan, inbertsioaren kostuak eragin negatiboa izango du kontratua egin duen administrazio publikoaren defizit eta zor publikoan”.

Europako Batzordera ere jo du GuraSOS-ek. Eskubide komunitarioaren araudi urraketa salatu eta horren aurrean, Espainiaren aurkako prozedura abiatzea eskatu du, “kontratazio arloan izandako arau-hausteagatik, eta ingurumenaren eta hondakinen arloan parte hartzeko eta justizian sarbidea izateko eskubideak urratzea-

gatik”. Erraustegiaren proiektu honetan zuzenean inplikatuak dauden GHKri, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari “proiektuaren suspentsioa eskatzea” galdegin diezaiola eskatu dio GuraSOS-ek Europako Batzordeari. Baita, “hasiera-hasieratik herritarren parte-hartzea bermatuko duen hondakinen kudeaketarako planaren berrikustea martxan jartzea eskatzea”.

### Europako Batzordearen zain

GuraSOS-etik ohartarazi dutenez, Europako Batzordeak arau-hauste espediente ireki edo ez erabakitzeke urtebeteko epea du. Irekitzea onartuko balu, “Luxenburgoko Justizia Auzitegiaren bidez ebaztzeko litzateke gaia. Erreklamazioen aldeko ebazpenak erraustegiko kontratuaren deusezte automatikoa ekarriko luke”.

dugu, parte-hartze benetakoa eta efektiboa izango dena eta etorkizunerako aukera guztiak irekiak izango dituen, tartean, Donostiak erraustegirik behar duen edo ez”.

Bileraren gonbitaren Aldundiaren erantzunaren zain, “gatazka hau gainditzen lagunduko duten adostasunen bila” segiko du GuraSOSek.

### Gipuzkoako hondakinak, Bizkaiara

Zenbait hedabideek egunotan zabaldu dutenez, Zubietako erraustegiko lanak amaitu eta martxan jarri artean, Gipuzkoak bere azpiegiturekin kudeatu ezin dituen hondakinak Bizkaiara bideratzeko aurreakordioa adostu dute bi herrialdeotako foru aldundiek. Uda ostean hasiko dira garraiatzen hondakinak, ziu- rrenik Zabalgarbiko erraustegira. 20.000 tona aurten, 25.000 tona 2019an.

### Erraustegia, 2019ko udazkenerako martxan

“Tratamendu mekaniko biologikoko eta biolehorketako plantetako eraikinak ia amaituta daude, eta hasiera eman zaio labeen eta gainerako ekipoen instalazioari”, Gipuzkoako Foru Aldunditik berri eman dutenez. 2019ko erraustegiko lanak amaitzea aurreikusten dute eta “probal- dia gainditu ondoren, 2019ko udazkenean funtzionatzen hasiko da Ingurumen Gunea” iragarri dute.

Lanen erdia egintzat jo dute jada, “eta, eraikuntza eta obra zibileko lanei dagokienez, % 70era iritsi da. Zehazki, tratamendu mekaniko biologikoko eta biolehorketako plantei dagozkien eraikinak amaituta egongo dira laster”. Erraustegiko lanak oso aurreratutak daudela nabarmentzen du Aldundiak. “Ekipamendu industrialek ezarpena egiten ari da, eta aurrera doa aurreikusitako epeen arabera. Amaitzen ari dira erraustegiak izango dituen bi labeetako lehenaren instalazio lanak, eta hasiak dira, baita ere, bigarren le- rroko lanak. Hain zuzen ere hori da tamaina eta konplexu- tasun handieneko ekipotako bat”.

## Premiazko bilera eskaera Aldundiari

Erraustegia barne hartzen duen 2019-2030 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan berria izapidetzen hasi dela iragarri du egunotan, Gipuzkoako Foru Aldundiak. 9 hilabete iraungo omen ditu izapidetze prozesuak “eta administrazioei, talde politikoei eta gizarte eragileei parte hartzeko aukera

emango zaie”.

Osasun berme gehienak eskaini eta ekonomia zirkularraren norabidean sakonduko duen plana elkarrekin diseinatu eta garatzeko, gai honetan konponbide adostu batera heltzeko premiaz biltzeko gonbita luzatzen dio GuraSOSek Diputazioari. “Berdinen arteko elkarlan bat proposatzen



# Ikastolaren urtemuga festa, iruditari

O hiko kirol jarduera eza-gunak alboratu, eta haien ordez, dantza, antzerkia, edota bestelako trebetasunak jokoan jarri zituzten Udarregi ikastolaren urteurren ospakizunetan. Herrian zehar antolatu zituzten jolas guneetan barrena zirkuitu modukoa osatu zuten hiru talde handitan banatuta. 50. urtemugako festaren azken asteburua izanik, mende erdi horri keinu bat baino gehiago egin zitzaion aurreko larunbateko ekitaldietan.



Bapatean Zirko Taldeak "Tenderetea" ikuskizuna eskaini zuen ostiralean Olanonea plazako anfiteatroan.



**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

# Kalezar, San Juanen atarian

Azken asteotako giroak bestelakorik badirudi ere, uda atarian gara, festen zurrumbiloan murgiltzear. Jaien bira astebete barru abiatuko dute Kalezarren.

## Ekainak 22, ostirala

- 16:00 Buruhandiak.
- 17:00 Herriko dantzariak.
- Ondoren, auzotarren arteko jokoak.
- 21:00 Kalezar-Andatza-Kalezar BTT gauz.
- 22:30 Elektropapo, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 23:30 Txosnaren irekiera.
- 00:00 Fan&Go taldearekin dantzaldia.

## Ekainak 23, larunbata

- San Juan bezpera eta Oilasko Biltzaileen Eguna.
- 10:00 Oilasko-biltzaile txikien irteera.
  - 14:00 Oilasko-biltzaileen bazkaria (tiketak Kaffa kafetegian eros daitezke ekainaren 15etik 21era bitartean).
  - 15:00 San Juan eskearen irteera.
  - 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).
  - 22:00 San Juan Sua.



Iaz, auzokideak omenduz abiatu zuten San Juan eskea.

## EKAINAREN 22AN

**Buruhandien ikuskizunarekin eta herriko dantzarien emanaldiarekin hasiko dira festak**

Ondoren, eskearen jarraipena.  
 ■ 00:00 Txosnaren irekiera.  
 Ondoren, Dj Gude.

## Ekainak 24, igandea

San Juan Eguna eta Umeen Eguna.  
 ■ 10:00 XVI. Ume Krosa.

- 10:30 Meza nagusia.
- 11:00 Jolasak.
- Ondoren, toka.
- 13:00 "Gorritiren showa".
- 16:00 Tailerrak.
- 18:00 Txokolatada.
- Ondoren, buruhandiak.
- 18:30 Ttipika Taldearekin dantzaldia.
- Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa "Saizar" sagardotegiaren eskutik.
- Antolatzaila: Kalezarko Jai Batzordea.
- Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

## Pintura eta arte kuantikoari buruzko erakusketa

Izaskun Silva Zalvide eta Willy Jones herritarrek antolatu duten erakusketa Sutegin bisitatu ahalko duzue ekainaren 18tik 24ra. Asteazkenean, 16:30-20:00 artean. Asteburuetan ordutegi honetan: 10:30-13:00 / 16:30-20:00.

Erakusketa honen testuinguruan, "La re-evolución cuántica, una mirada al futuro" ("Iraultza kuantikoa, etorkizunari begirada") hitzaldia antolatu dute hilaren 22an, arratsaldeko 20:00etan Sutegiko auditorioan. "Zientziaren azken

aurkikuntzek gure eguneroko bizitzan nola eragingo diguten azalduko du Willy Jonsek".

### Informazio gehiago:

budacuatico1@gmail.com  
 Facebook: Izaskun Silva Zalbidereen orrialdean.

## Udako ikastaroak euskaltegian

B2 eta C1 mailak prestatzeko 80 orduko ikastaroak eskainiko ditu Etumeta AEK euskaltegiak udan, uztailean edo irailean. Prezioa, 136 euro. Honez gain, Euskal Herriko txoko ezberdinetan, euskalduntze nahiz azterketa ezberdinak prestatzeko barne-tegiak, ikastaro trinkoak... antolatu dira.

### Informazio gehiago:

Nagusia, 43  
 607 609 379  
 usurbil@ae.k.eus  
 aek.eus  
 muntteri.blogspot.com.es

## Parekidetasunean oinarritutako hezkidetza ikastaroa

"Aisialdiko testuinguruan sortzen diren egoera asko diskriminatzaileak izan daitezke. Nola identifikatu egoera horiek eta zer egin sexismo egoerak ekiditeko?" galdera hauen inguruko lanketa egiteko doako ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak ekainaren 26rako, haur eta gazteen aisialdian lan egiten duten begiraleentzat. Ikastarorako izena ekainaren 15a baino lehen eman beharko da. Informazio gehiago: 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.eus





# BERRIAk15

## ZOZKETA

*Zure konpromisoa saritu nahi dugu*

BERRIAren 15. urteurrena  
BERRIALagunentzako  
opariz beteta dator

Sartu webgunean, eta parte  
hartu zozketan!

[berria.eus/berriak15zozketa](http://berria.eus/berriak15zozketa)

Egin BERRIALagun  
ekainaren 19a baino lehen  
eta parte hartu zozketan!

1

Astebeteko bidaia hiru  
lagunentzat **Costa Dauradara**.

2

Astebeteko bidaia bi lagunentzat  
**Kanaria uharteetara**.

3

Lau eguneko bidaia bi  
lagunentzat **Kanaria uharteetara**.

4




Eroskiko **100 euroko** hamabost  
erosketa orga.

5



BERRIAren **urte osoko** hiru  
harpidetza.

Laguntzailerak



**berria**  
#BERRIAK15



# Drain

# GIDABAIMENA EUSKARAZ

**Zozketa!!**

400 euro

arteko

9 sari

## BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Buruntzaldeako herriren batean erroldatuta egotea.
- Gidabaimena euskaraz ateratzea, 2018. urtean. Behean aipatzen diren autoeskoletan.
- Autoeskoletan dauden eskuorrietako fitxa bete eta bertan entregatzea.



BURUNTZALDEAN NON			
ANDOAIN	BENGOETXEA	Juan Bautista Erro, 9	943 59 44 06
	MENDI	Agustin Leitza, 11	943 30 06 04
ASTIGARRAGA	OTAMENDI	Zubiondo, 14 - LOIOLA	943 45 11 07
HERNANI	HERNANI	Latsunbe, 3	943 55 05 34
	LAGUNAK	Karobieta, 1	943 33 23 30
	OTAMENDI	Izpizua, 1	943 55 35 45
LASARTE-ORIA	MUGICA	Ganbo, 1	943 36 22 75
URNIETA	SOLOZABAL	Idiazabal, 24-1C	943 33 41 69
USURBIL	SOLOZABAL	Irazu, 2	943 37 69 36

**Dakizuna erabili ez dakizuna ikasteko**



# Euskaraz ikasteak SARIA du

ADITI!!



## Astigarraga

Otamendi  
autoeskola

EMAN  
BIDEA



## Usurbil

Solozabal  
autoeskola



## Lasarte-Oria

Mugica  
autoeskola



## Hernani

Hernani,  
Otamendi eta  
Lagunak  
autoeskolak



## Urnieta

Solozabal  
autoeskola



## Andoain

Bengoetxea eta  
Mendi autoeskolak



BURUNTZALDEA

[www.buruntzaldea.eus](http://www.buruntzaldea.eus)

Andoain, Astigarraga, Hernani,  
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo  
Udaletako Euskara Batzordeak



Gure Esku Dago giza katea. 2018ko ekainaren 10ean.









# Milaka lagun oinez eskutik lotuta



Bideoak eta argazki gehiago nouua.eus web orrian eta NOAUAlren sare sozialetan topatuko dituzue.








Lurdes Huetaeren argazki kameratik



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



©lurdeshueta Gure Esku Dago Usurbil-2018



# Joxan Artzeri herri omenaldia larunbatean

Urte hasieran zendutako sortzaile usurbildarra omenduko du herri honek ekainaren 16an. Auzolanean, herritarrek, eragileek eta Udalak egun osoko jaialdia antolatu dute “Joxan Artze guregan” egoten segitzen duela sentitu, eta merezitako agurra emateko.

## “Joxan Artze guregan”

Ekainak 16, larunbata

■ Egunean zehar:

-Joxan Artze irudikatuz, Sute-giko erakustaretoan. “Txoria txori” poema irakurrita, haurrek akuarelaz sortu dituzten marrazkiak ikusgai jarriko dira erakustaretoan.

-Joxan Artzeri idatziz egunean bertan, erregistro liburua egongo da, Joxan Artzeri zerbait idatzi nahi dionarentzat. Aldez aurretik, Potxoenea kultur etxera etorrita ere idatz daiteke bertan. Tel: 943 371 999.

■ 10:30-11:30 “Harria Hitz” doako bisita gidatua frontoitik abiatuta.

“Euskal tradizioa eta modernitatea ederki uztartu dituen herria da Usurbil, baita euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria ere. Inon baino hobeto islatzen da 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatu zen kultura-eztanda eta baita eztanda horren ondore-



Joxan Artze, argitaratzeaz zituen bere poemen aurrean. Argazkia: Juan Luis Zabala.

### EKITALDI UGARI

**“Egun osoan, erregistro liburua egongo da Potxoenean, Joxan Artzeri zerbait idatzi nahi dionarentzat”**

na ere. Harria hitz ibilbideak, herrigunean ikus daitezkeen zenbait elementuren bitartez, Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian jokatutako papera ezagutaraztea du helburu. Eta, jakina, Artze anaiek ere, oharkabean ia, rol garrantzitsua jokatu zuten susperraldi horretan. Gehiago jakin nahi izatera... ordubeteko ibilbidetxo honetan parte hartzera animatzen zaitugu”.

■ 10:30 Usurbilgo frontoian elkartu.

■ 10:35 Harria hitz bisita gidatua herrigunean (Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua)

Izena emateko eta erreserbak aurrez: 688 818 017 edo info@kultour.pro (gehienez 25 laguntzako lekua).

■ 11:30 amaiera.

■ 12:00 Joxan Artze oroitzu Mikel Laboa plazan. Txalaparta, poesia, dantza, kantua eta musika lagun ditugula oroitzuko dugu Joxan Artze.

■ 17:00 Joxan Artze sentituz Olanoneko anfiteatroan. Haurrek marrazkiak egingo dituzte txalaparta entzunez sentitzen

dutenarekin. Ondoren, ipuin kontaketa laburra izango da.

■ 18:30 Joxan Artze partekatuz Dema plazan. Joxan Artzeren lanaren aitortza egingo da, poesia eta txalaparta uztartuz. Bertan, Joxanekiko sentimenduren bat adierazi nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute, txalaparta joz edo haren poema bat irakurritz. Dagoeneko hamarnaka haur eta helduek izena eman dute ekitaldian parte hartzeko.

■ 22:30 Joxan Artze biziz frontoian. Joxan Artzeren lanean oinarritutako ikuskizuna gertutik biziko dugu: dantza, txalaparta, poesia, musika, bertsoak...

Antolatzaileak: herritar, eragile eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlanean.

## Gure Esku Dagoren eskertza

Usurbilgo Gure Esku Dago taldetik esker eta zorion hitzak helarazi dituzte ondoko lerroon bidez, ekainaren 10eko giza katean parte hartu eta lagundu zuten guztiei:

“Zorionak denoi. Igandean

bitzitakoa izugarria izan da. Sinistu dezagun behingoz, elkarrekin gauza handiak lortu ditzazkegu!

Lerro hauen bidez gure eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiegu Usurbil eta Aginagatik igaro zen giza katea posible egin zuten boluntario

guztiei; salda, txokolata nahiz mokadutxoa prestatu eta banatu zutenei, kamixetak eta zapiak saltzen ibili zirenei, txistulari, trikitilari eta adar jotzaileei, Usurbilgo Udalari, zegozkigun kilometroak antolatzen aritu zirenei, trafikoa nahiz aparkalekuak zaindu

eta zuzendu zituztenei, Elektropapo elektrotxarangakoei, eguneko zirrara argazki bidez jaso zuten argazkilariei... eta noski, baita NOAUA!ko langileei ere. Zuek gabe, ez zen posible izango!

Gure Esku Dago Usurbil”.



# Solasaldia Usurbilgo ur sistemaz eta ur politikaz

**G**ogoan izango duzue, azaroko gastroenteritis brotea antzeman zenetik, ezin izan da edan Erroizpetik zetorren ura. Egoera laster alda daiteke. “Egunotan frogak egiten ari dira egiten herriko ur-sisteman egindako inbertsioak eta berritutako instalazioak ongi funtzionatzen dutela baieztatzen. Hala, dena ondo bidean, egun gutxi barru, Erroizpeko uraz hornituko da berriro ere herriaren zati handi bat”, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

Iazko urte amaieran gertaturikoa errepikatzea saihesteko “neurriak hartu ditu Udalak: 90.000 euroko inbertsioa egin du, eta ur-bilketa, banaketa eta kontrol-mekanismoak nabarmen hobetu ditu”.

## Eztabaida mahairatu

Gai honekin jazotakoa baliatu nahi du Udalak orain, “uraren kudeaketaren gaineko eztabaida sakona mahai-gainean jartzeko”. Bi ekimen iragarri ditu:



Ekainaren 19an, Iñaki Antigüedad Hidrogeologiako katedraduna (argazkian) eta Valentín Dehesa Udalaren aholkularia arituko dira solasean Sutegin.

## UDALA

**“90.000 euroko inbertsioa egin dugu eta ur-bilketa, banaketa eta kontrol-mekanismoak nabarmen hobetu ditugu”**

■ Jada Sutegiko erakusleihoan ikusgai dagoen uraren sistema herritarrei azaltzeko erakusketan informatiboa.

■ Ekainak 19, solasaldia (elebitan) 18:30ean Sutegin. Parte hartzaileak: Iñaki Antigüedad (Hidrogeologiako katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean), Valentín Dehesa (Elikaduraren industrian kontrol-sistemak diseinatzen aditua eta Udalaren aholkularia gai honetan), eta Xabier Arregi (Usurbilgo alkatea). Herritarrek solaskideei galderak egiteko aukera izango dute.

## Joan Mari Torrealdaien azken liburua hizpide eta aztergai

Joan Mari Torrealdaien bere azken lana aurkeztuko du ekainaren 20an arratsaldeko 18:30ean Sutegin. Usurbilgo Udalak antolatutako ekitaldian, Idoia Torregarai eta Mertxe Aizpurua kazetari usurbildarrek Torrealdaien elkarrizketatuko dute. Xabier Arregi alkatea emango dio ongi-etorria ekitaldiari. *Asedio al euskera* (Txertoa) liburuan, euskararen kontra hartu diren neurriak eta egin diren adierazpenak batu ditu. Joera horren atzean ideologia supremazista ageri dela zioen ekainaren 1ean orriotan plazaratu genuen elkarrizketan. Gaztelania goraiatu eta euskara mespretxatzeko dinamika. Liburua hobeto ulertzeko gako gehiago eskainiko ditu ekainaren 20an, Sutegin.



Ekainaren 20an, 18:30ean Sutegin.

# Ugaitz Agirrek bere lehen nobela aurkeztu du

**T**ximeletak bizkarrean (Susa), hala du izena Ugaitz Agirreraren lehen nobelak. Astearte goizean aurkeztu zuen hedabideen aurrean.

Florentziako Unibertsitatean Historia irakaslea da Sara, nobelako protagonista. Istripu txiki baten ondorioz, iraganeko mamu bat ekarriko du gogora. Aitari bisita egitera jaioterrian dela, gaztaroko mamu gehiago azalduko zaizkio. Nobelan zehar iraganaren zama honek protagonistarengan eta haren harremanetan duen eragina ezagutuko dugu.



Astearte goizean, Donostiako Udal Liburutegiko sotoan aurkeztu zuen Tximeletak bizkarrean (Susa) izeneko liburua.



# Gaur egun utopia zer den eta non kokatzen den aztertuko dute Jakin Jardunaldietan

1968ko udaberrian mundu berri baten aldarria egin zen munduko txoko askotan. Garai hura erabakigarria izan zen baita euskalerritarrentzat ere. Ikastolen mugimendua, euskara batua eta helduen alfabetatzea, euskal kantagintza berria, literaturaren modernotzea, sekularizazio prozesu bizkorra, Lemoizko zentral nuklearra... “Garai zaharraren amaiera eta berriaren sorreraren esperantza irudika zezakeen”. Mende erdi pasatu den honetan, egungo aldarri eta gizarte auzi eta eraldaketei erreparatzeko aukera profitatuko dute uztailaren 12 eta 13rako Usurbilen antolatatu den Udako Ikastaroan.

Horretarako, bederatzia aditu eta aritu bilduko ditu ‘Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila’ Jakin Jardunaldiak Usurbilen, “gogoeta kolektiboaren bitartez, nora goazen edo nora joan nahiko genukeen begitantzeko”. Uztailaren 12an eta 13an egingo dira Jardunaldiak.

## Bigarren urtez, Usurbilen

UEUren, Usurbilgo Udalaren eta Jakinen elkarlanaren emaitza dira Jakin Jardunaldiak. “Iaz



Jakin Jardunaldiak aurkeztu zituzten aurreko astean. Usurbilen egingo da Udako Ikastaroa, uztailaren 12an eta 13an. Izen ematea zabalik da.

Jakin eta Usurbilgo Udalarekin abiatu genuen bideak fruitu ederak eman ditu”, azaldu zuen Iñaki Alegria UEUko zuzendariak udako ikastaroaren aurkezpenean. Eta bide horretan jarraitzeko borondatea berretsi zuen Xabier Arregi Usurbilgo alkateak: “Usurbil hitzaren, gogoetaren eta solasaldi pausatua- ren parada izatea nahi dugu”.

## Utopia berriak aztergai

Utopia hitza izango da jardunaldiaren ardatza. Izan ere, 68ko udaberrian utopiaren zentzua berri egin zen, Arregiren us- tez. Iritsezina zen lekua izatetik errealitatea eraldatu eta praktikan jartzeko bide erreala bihurtu zen. Horregatik merezi du utopia horiek egungo begietatik aztertzea, “batere nostalgia-

rik gabe”. Berezi “gaur egun eta hemen utopia zeri deitzen diogun aztertzeko, gizarte eraldatzeko borroka eremuak non dauden zehazteko, eta zer iruditeria kolektibo eraiki eta partekatzen ari garen hausnartzeko, nola berri dezakegun pentsatzeko”. Egungo errealitatea eta borroka aztertzea baita jardunaldiaren helburua.

## #ElkarEkin

Iñaki Alegria UEUko kidearen arabera, “UEUren zereginen artean dago topaguneak eskaintzea: ezagutza eta euskara zabaltzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko. Udako Ikastaroak helburu horiek guztiak bideratzeko toki ezin aproposagoak dira, bai eta elkarlana sustatzeko ere. Horregatik dugu #ElkarEkin lelotzat”.

## Larunbat honetan, hitzaldia Potxoenean

Uztailaren 12an eta 13an egingo da Udako Ikastaroa. Aurretiaz, Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek hitzaldia eskainiko dute larunbat honetan 10:30etik aurrera Potxoenean. Feminismoaz eta euskaraz, utopia ardatz harturik.

## ‘Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila’, programazioa

### Uztailak 12 osteguna

- 09:00-09:30 Harrera eta material banaketa.
- 09:30-09:45 Lorea Agirre (Jakin): *Utopiari sarrera*.
- 09:45-10:45 Amaia Lasa (idazlea, poeta eta irakaslea): *Nondik gatoz, non gaude*.
- 11:00-11:30 Atsedendaldia.
- 11:30-12:30 Alba Garmendia (EHUko Filosofia Saileko doktoregaia): *Utopia klasikoak eta berriak*.
- 12:30-13:30 Edu Apodaka

(EHUko Soziologia irakaslea): *Praxia, pragmatismoa eta utopia elkartzen diren tokia*.

- 13:30-14:45 Bazkaria.

### Zaintzaren utopia

■ 15:00-15:45 Uzuri Aboitiz (Universitat de Barcelonako Gizarte Antropologia Saileko doktoregaia): *Zaintzak erdigunera. Aukerak, arriskuak eta zenbait galdera*.

15:45-16:30 Bego Zearreta (Bizkaiko adinekoen egoitzetako

langile grebalaria): *Zaintzaren aldeko borroka*.

- 18:00 ‘Herria Hitz’ bisita gidatua. Txokoaldeko Txalapartar Txokoari bisita barne.

### Uztailak 13 ostirala

#### Utopia sozio-ekologikoa

- 09:30-10:30 Iñaki Barceña (EHUko Politika Saileko irakaslea): *Eko-Sozialismo-Feminista, utopia berri bat?*
- 10:30-11:15 Anaiz Agirre eta Xabier Harlouxet (Bizi! mugimendua): *Alternatiba burujabe bat lantzen*.

mendua): *Alternatiba burujabe bat lantzen*.

- 11:15-11:45 Atsedendaldia.

■ 11:45-12:30 Bego Huarte (Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma): *Harrera herria nola antolatu*.

### Izen-ematea

www.ueu.eus  
943 82 14 26  
i.iciar@ueu.eus

### Matrikula-prezioak:

Orokorra, 10 euro.



# Usurbil Cup-en izen emateko garaia

**E**hunka haur eta gazte-txo futboleko lagun artean jokatzeko jartzen dituen Usurbil Cup ekimenean izen emateko epea zabaldu du Usurbil F.T.-k. LH1-etik DBH2 maila artean ikasten ari direnei zuzenduriko ekimenean izen emateko orriak Oiardo Kiroldegian izango dituzte interesdunek, ekainaren 18ra arte. Inskripzio epea beraz, astelehenera arte (ekainak 18) luzatuko da. Irailetik urrira ospatuko da aurtengo Usurbil Cup. Antolakuntzatik, aurreko urteen antzera, lehiarik gabeko eta lagun arteko ekimena dela gogoraz nahi dute.

## Usurbil K.E.-ren denboraldi amaierako afaria

2017-18 kirol urtea ospakizun egun baten bueltan borobilduko dute urtero legez, herriko kirol taldeek. Ekainaren 23an izango da. Usurbil



Oiardo Kiroldegian eman behar da izena. Epea: ekainak 18. Txapelketa irailetik urrira ospatuko da.

### ESKUBALOI TADEA

**Denboraldiari agur esango diote afari batekin. Ekainaren 23an larunbata, frontoian**

K.E.-k, besteak beste, denboraldi amaierako afaria antolatuko du 21:00etan, Usurbilgo frontoian. Txartelak salgai di-

tuzte jada, Txiriboga, Benta, Bordatxo eta Aitzaga tabernetan; helduenak 20 eurotan, 14 urte arteko gazteenak 12 eurotan.

Honako menua dastatu ahalko da: hestebete-platera, otarrainxka egosiak, txanpiak saltsan, lumagorri oilaskoa, saiheskia, letxuga eta tipula, ijito-besoa izozkiarekin, edaria, kafea eta kopa.

## Parekidetasunari lotutako hitzorduak

### Ekainak 14, osteguna

■ 13:15 Autobusez Donostiara. "Emakumeok egunpasa eta piraguan ibiltzera goaz. Eguerdian Ondarreta hondartzan jolasean ariko gara palan, baloi, gitarra eta eraman nahi dugun guztiarekin. Bertan bazkalduko dugu (janaria etxetik eramanda) eta 16:00etan piraguan ibiltzera joango gara itsasora. Teniseko pista aurrean, Haizearen Orrazia aldera doan ibilbidearen hasiera parean

pasako dugu goiza, eta beranduago datozenek jakiteko, bertan elkartuko gara zuzenean piraguan ibiltzera doazenekin. 19:00ak aldera bukatuko dugu. Prezioa: 8 euro. Ostegun goizeko 11:00ak baino lehen izena eman helbide honetan: usurbilgogazteak@gmail.com

### Ekainak 16, larunbata

■ 10:30 Hitzaldia Potxoenean: 'Elkarguneko feminismoa, bi-

daikidetzat bat utopiara: nola uztartu generoa, hizkuntza eta klasea'.

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelekin batera arituko dira solasaldian.

### Ekainak 26, asteartea

■ 17:30 Jai berdinzalegoen aldeko gogoetarako espazioa sortzeko saioa Potxoenean, Farapi kooperatibako kideekin.

Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

## "Nordic Walking"

### ikastaroa

- Ekainak 28: 16:00-19:00.
- Ekainak 29: 17:00-19:00.
- Prezioak: bazkideek, 20,50 euro. Bazkide ez direnek, 41 euro.
- Makilen alokairua: 5 euro.
- Informazioa: Oiardo Kiroldegian, ekainaren 24 arte.

## Aitor Arangurenen debuteko afaria, hilaren 23an Aginaga sagardotegian

Ekainaren 23an debutatuko du profesioaletan, Tolosako Beotibarren. Autobus zerbitzua antolatu dute, 6 euroren truke. Partidarako sarrerak ere aurrez eskuratzeko aukera dago. Bueltan, afaria antolatu dute Aginaga Sagardotegian. Prezioa, 20 euro.

Argibide gehiagorako:

- 695 723 192 (Aitziber).
- 680 347 768 (Leire),
- Aginagako Arrate, Aitzaga.

## Pagazpe, Euskal Herriko Trinkete

### Txapelketako finalean

Larunbat honetan jokatuko da, 18:00etan, Irurako trinquettean. Eskuz binaka, nagusien mailan, Usurbilgo Pagazpe eta Abadiñoko Txumutxuluetan taldea aurrez aurre. Enrike Huizik eta Mikel Landak ordezkatzeko dute Pagazpe.



**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
600 024 825



# Unai Sagarzazu: "Oraindik ez naiz nire maila gorenera iritsi"

Asteburu honetan jokatuko da Euskadiko Triatloi Txapelketa. Unai Sagarzazu gaztea izango da partehartzaileetako bat. Psikologia ikasten ari da. Udan, sorosle bezala arituko da Orion. Triatloia da egun duen pasio handienetakoa.

## NOAUA! Triatloian aritzeko joera nondik datorkizu?

**Unai Sagarzazu.** Txikitan futbolearen eta igeriketan aritu nintzen. Gero igeriketa utzi eta futbolearen jarraitu nuen. 14 urterekin edo, futbola baztertu eta berriro igeriketan hasi nintzen. Nire kabuz. Itsasoko zeharkaldi luzeetan hasi nintzen lehiatzen. Urteak urtera gero eta hobeto ibiltzen nintzen, postu hobeak lortzen.

## Hortaz, igeriketatik iritsi zinen triatloira.

**U. S.** Hori da. Korrika ere ibiltzen nintzen garai horretan. Triatloian aritzen ziren ezagun batzuk nituen. Txipa aldatzeko gogo sartu zitzaidan eta bizikleta bat erosi nuen. Horrela hasi nintzen triatloian.

## Talderen batean edo zure kasa?

**U. S.** Igeriketan, UTIKE taldekoa nintzen baina ez genuen apenas lehiatzen. Nire kasa ibiltzen nintzen itsasoko zeharkaldietan, independente bezala parte hartzen nuen. Donostian, Hondarribian, Deban, Bilbon... Iaz Ebro-Tarragonako proban eman nuen izena. Azken orduan bertan behera utzi zuten. Urte osoa hori prestatzen eman nuen eta suspenditu zuten unean erabaki nuen igeriketa utzi eta triatloian murgiltzea.

## Beraz, triatloian, urtebete darrazu serio samar.

**U. S.** Duela hiru urte lehen tria-



Senpereko triatloi lasterketa irabazi zuen maiatza hasieran.

## UNAI SAGARZAZU

**"Igeriketako da ondoen egiten dudana proba. Eta distantzia laburreko lasterketetan, lehendabizikoan artean ibiltzeko ezinbestekoa da uretan ondo moldatzea"**

tloia egin nuen baina lesio bat izan nuen belaunean eta urtebetez korrika ibili gabe pasa nuen. Iazko udan bi proba egin nituen, emaitza dezentek ateratu nuen eta aurrean Euskal Herriko zirkuituan eman dut izena.

## Lasterketetan, Baxurde Kross taldearekin lehiatzen zara, ezta?

**U. S.** Triatloi lasterketetan ateratzeko, federatuta egon behar duzu eta Baxurde Txiki triatloi taldeko kide naiz. Horretaz aparte, astean hirutan entrenatzen dut Lasarte-Oriako Buruntzaldea igeriketa taldekoekin. Bizikletan eta korrika nire kabuz aritzen naiz.

## Zure burua eroso ikusten al duzu kirol gogor honetan?

**U. S.** Orainxe hasi naiz eta uste dut ez naizela oraindik nire maila gorenera iritsi. Nire

burua triatloian ikusten dut, baina erotu gabe.

## Maiatza hasieran Senpereko triatloia irabazi zenuen. Zure lehen garaipena izan al zen?

**U. S.** Beste batzuetan lehena geratu izan naiz baina nire kategorian. Senperekoan, lehendabizikoa izan nintzen sailkapen orokorrean.

## Horrelakorik espero al zenuen?

**U. S.** Igande goizean izan zen proba. Bezperan, erlojupeko lasterketa bat jokatu zen, taldekakoa. Hura egin eta gero gogotsu jarraitzen nuen. Hurrengo eguneko bakarkako lasterketa zen, ondo ibili nintzekeela aipatu zidaten eta izena ematea erabaki nuen.

## Atera eta irabazi. Ezustean?

**U. S.** Lehenengo postuetan ibiltzea espero nuen. Baina irabaztea ez.

## Igeri, korri egin, bizikletan ibili. Triatloiko hiru kirolen artean, zein duzu gustukoena?

**U. S.** Igeriketako da ondoen egiten dudana proba. Eta distantzia laburreko lasterketetan, lehendabizikoan artean ibiltzeko ezinbestekoa da uretan ondo moldatzea.

## Larunbat honetan Euskadiko Txapelketan hartuko du parte

NOAUA! Uda garaian izaten dira lasterketa gehien. Beraz, lanpetu samar ibiliko zara orain.

**Unai Sagarzazu.** Neguan duatloiak egiten dira eta uda partean triatloi gehienak. Hemen, Euskal Herrian, apirilean izaten da lehen triatloia. Denboraldiak maiztetik irailera irauten du. Larunbat honetan, Euskadiko Txapelketan hartuko dut parte. Lekeition jokatu da aurrean. Eta ekainaren 24an Onditx Donostiako Triatloi Olinpikoan arituko naiz.

## Triatloi olinpikoan, hori izango duzu lehen proba?

**U. S.** Bai, ni sprint distantzian aritzen naiz eta Onditx izango da distantzia horretan egiten dudana lehenena.

## Eta ironmanak, begiz jota al dituzu?

**U. S.** Mundu honetan dabilenak distantzia horietan aritzeko joera izaten du. Noizbait akaso iritsiko gara horrelako bat egitera baina orainxe bertan erokeria iruditzen zait. Ez dakit osasunarentzat ona ote den. Bestetik, ikasketak eta lan kontuak tarteko, denbora mugatua dugu eta hori prestatzeko denbora behar da.



"Ekainaren 24an Onditx Donostiako Triatloi Olinpikoan arituko naiz".



## ETXEBIZITZA

## Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro<sup>2</sup>, 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidea-ekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m<sup>2</sup>ko pisua salgai Aginagan, 65m<sup>2</sup>ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro<sup>2</sup> lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalezakozia. Dena berri-ritua. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jakotkia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trasteleku. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berri-ritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, suk-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noeua.eus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

de handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berri-ritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Etxebizitza bat alokatzen da Bizkarre kalean. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, jangela-egongela handia, trasteleku, igogailuarekin. Tel. 650 825 663.

Pisu bat alokatzen da Santue- nean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702

807.

Santueanean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-ldal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 getetako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Errodatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaieak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Ateagalden. Autoak sartzeko atearrekin. Goiko kalea 2.

676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozia- garririak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karra- tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializ- atua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil. Garbiketan edo per- tsona helduak zaintzen. Etxean,

ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo exter- na bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko espe- rientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona heldu- ak edo umeak zaintzeko. Espe- rientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo perso- na helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak egune- ratuta. Tel. 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Ge- rriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxe- ko lanetan eta antolamenduan.



## Zorionak Hugo!

Igandean 7 urte beteko dituzu, muxu handi bat familia guztiaren partez!



## Zorionak Amets!

Gure etxeko xomorro txikiak, Ekainaren 12an bere lehen urtetxo egin diguuuu... Ze ondo ospatu genuen!!! Muxu askoasko, lera, Naiara eta famili guztiaren partez.



## Zorionak Uxia!

Ekainaren 17an urte bat beteko duzu. Askomaite zaitugu! Aitatzko, amatxo eta Iraia.

## Heriotzak

## Agustin Calvo Martinez

79 urterekin hil zen ekainaren 11n Usurbilen



## Jose Carlos Anton Sonda

59 urterekin hil zen ekainaren 5ean Aginagan





Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperentziarekin. 645

067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak

zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitateak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesez eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, or-

duka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperentziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egingo. Irterna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldari bezala). 688 654 698.

dearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

#### BESTELAKOAK

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pulstometroduna. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Deputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Ambulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZGunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeo Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 14** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 15** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 16** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 17** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 18** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Ekainak 14 - Ekainak 24

**Osteguna 21** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 22** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 24** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.



# Agenda ekaina

## 15 ostirala

■ **Zumarte Musika Eskolakoek ikasturte amaierako kontzertuak.** 19:30ean Santueneko frontoian. Zumarteko pop-rock, folk eta gitarra taldea.

## 16 larunbata

- **Herri omenaldia: "Joxan Artze guregan"** Egun osoko jardunaldia.
- **Hitzaldia: "Elkarguneko feminismoa: Nola uztartu generoa, hizkuntza eta klasea".** 10:30ean Potxoenean.

## 17 igandea

- **Irteera Txokoaldeko Txalaparta Txokora.** 09:30ean Mikel Laboa plazatik irteera.

## Ikasturteari agur musikatua

**2** 017-18 ikasturtea urtean zeharreko lanketa plazaratuz agurtuko dute Zumarte Musika Eskolakoek, egunotarako deitu dituzten kontzertuen bitartez:

### Ekainak 15, ostirala

■ 19:30 Zumarteko pop-rock, folk eta gitarra taldea Santueneko frontoian.

### Ekainak 19, asteartea

■ 18:00 Musika Txokoko talde eta Kantu-Kantari taldeen emanaldia Ikastolako areto nagusian.

### Ekainak 20, asteazkena

■ 19:00 Zumarte Gazte Abesbatza eta saxo-pianoko taldeen emanaldia Kalezarreko elizan.



Urte osoan ikasitakoa erakutsiko dute kontzertu eta kalejiren bitartez.

### Ekainak 21, osteguna

- 17:45 Triticitxa-pandero talde eta txarngaren kalejira.
- 18:30 Talde instrumental desberdinen emanaldia Sutegin. Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

## Igande honetan, Txokoaldeko Txalaparta Txokoa ezagutzeko aukera berri bat

Mintzalagun egitasmotik antolaturiko irteera, herritar ororentzat irekia. "Oreka TX-ko kideek Txalaparta Txokoa erakutsiko digute eta txalaparta jotzeko aukera izango dugu!".

■ Biltzeko hitzordua: 09:30ean Mikel Laboa plazatik irteera.

■ Bisita: 11:00etan Txokoaldeko Txalaparta Txokoa (Txokoaldeko geltoki zaharra).

■ Izen ematea, aurrez: 607 609 379 / 943 360 321 / [usurbil@ae.k.e.us](mailto:usurbil@ae.k.e.us)

■ Antolatzaileak: Etumeta AEK euskalgia, NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.

### Datozenak

#### Bertsopaper Lehiaketako lanak, ekainaren 21erako

Iaz bezala, bi txapelketa antolatu dira aurten; bat LH 5 eta 6 mailetako ikasleei zuzendua, bestea 16 urtetik gorakoentzat. Lanak ekainaren 21a baino lehen aurkeztu behar dituzue udaletxean.

#### Ekainaren 21ean, askaria Bihurri ludotekan

Ikasturtea bukatu eta udako oporren abiatzea, askari eder baten bueltan egingo dute Bihurri ludotekan. Ekainaren 21ean, arratsaldeko 17:00etan hasita. "Zatoz! Oparitxoak ere egongo dira!", iragarri dute.

#### KzGuneko ikastaroak

- Ekainak 15-26, 11:00-13:00 "Komunikatu zaitez Sare Sozialen bitartez".
- Ekainak 26-27, 09:00-11:00 "Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik".
- Ekainak 27-28, 11:00-13:00 "Instagram".
- Ekainak 28-29, 09:00-11:00 "Erosketak seguruak Interneten".

#### Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37 / 943 023 684  
[tutor.usurbil@kzgunea.net](mailto:tutor.usurbil@kzgunea.net)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL



# EDERTU ZAITEZ!

**Enar**  
ESTETIKA

Zure azala  
Kalitate handiko  
produktuekin  
zaintzen dugu



[www.enarestetiko.com](http://www.enarestetiko.com) Munturru 2, Usurbil - 943 571 680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600



**UDABERRI BEGIRA  
JARRI ZURE AZALA PREST**

AURPEGI GARBIKETA: 35€  
GORPUTZGARBIKETA: 35€  
PRESOTERAPIA:  
SESIO 1: 20€ 10 SESIO: 125€

- PEDIKURA • MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO • DEPILAZIOAK

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial  
Nagusia 8, Usurbil Tel: 943 36 36 41



**Elexpe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL  
**ELUMEN**

9.00etatik 19.00etara zabalik

*ileapaindegia*



**mistoa**

**BIOLOGO BATEK  
MIKROSKOPIOZ  
EGINDAKO BURU-AZAL  
ETA ILEAREN AZTERKETA**

**KONTSULTA DOAN!**

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951



# "USURBILGO URA, GURE BALIABIDEAK"



Usurbilgo Udala

*mahai-ingurua (elebitan):*

Iñaki Antiguedad: Hidrogeologiako katedraduna  
Euskal Herriko Unibertsitatean

Valentin Dehesa: Elikaduraren industriaren  
kontrol-sistemak diseinatzen aditua,  
eta gai honetan udalaren ahokularia

Xabier Arregi: Usurbilgo alkatea

**Ekainak 19, asteartea**  
**18:30, Sutegin**

# "ASEDIO AL EUSKERA"

*liburuaren aurkezpena*

**Ekainak 20, asteazkena**  
**18:30, Sutegin**

Idoia Torregarai eta Mertxe Aizpuruak  
Joan Mari Torrealdai elkarrizketatuko dute

